

**2015EKO URRIAREN 26AN SASIETA MANKOMUNITATEKO
BATZORDE ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hogeita seia

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

LEHENDAKARIA: Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria

BILDUAK: Eluska Ibarguren, Altzagako ordezkaria
Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria
Edorta Diaz del Rio, Beasaingo ordezkaria
Garikoitz Aiesta Etxaniz, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria
Jesus María Garmendia Gorostidi, Gaintzako ordezkaria
Ioritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkaria
Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria
Felis Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Iñaki Estensoro Sarasola, Lazkaoko ordezkaria
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria
Mariano Garmendia Iparragirre, Legorretako ordezkaria
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria
Jokin Garmendia Arruabarrena, Olaberriko ordezkaria
Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria
Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria
Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiko ordezkaria
Joseba Izagirre Arocena, Zegamako ordezkaria
Amaia Junquera Landeta, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Ordiziako ordezkariak izendatu gabe daude. Ordiziako Alkateak bileran parte hartu du ahotsarekin baina botorik gabe.

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Iñaki Erauskin Urretabizkaia Zerbitzuburuak.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko urriaren 15eko aktaren berri eman ondoren, Ordiziako Alkateak eskatu du aktan, “Une honetan Ordiziako ordezkaria batzarralditik atera da”, esaten duen tokian, ondorengo esatea: “Une honetan, bileran parte hartu duen ahotsarekin baina botorik gabe Ordiziako Alkatea batzarralditik atera da”.

2.- INFORMAZIOA: Aurreko Lehendakariaren agerraldia.

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: “Aurreko legealdiko Lehendakariari formalki jakinarazi zaio gaurko bilerara etortzeko aurreko legealdian onartutako hitzarmenei buruzko azalpenak emateko, baina ez da etorri.”

Aitor Aldasoro Lehendakariak: “Orain BILDUK esaten du EAJ alderdia dela gertatzen ari denaren erruduna. Ez dut ulertzen hori nola esaten duen igaro den iraila arte ni ez naiz lehendakari izan eta. 2015. urtearen bigarren sei hilabeteetan aurkitzen gara eta orain arte ezertxo ere ez da egin. Guk nola egin behar dugu beraiek lau urteetan egin ez dutena, hamabost egunetan?. Nahi izanda ere ezta 2016. urterako ez genuke zabortegia irekiko. GHK-rekin onartu zen bigarren hitzarmena sinatu gabe dago eta orain nik hori sinatu behar badut, Batzorde Errektoreak horrela erabakia hartu ondoren izan beharko luke.”

Mikel Serrano Zumarragako ordezkariak: “Publikoki gezurrak diren adierazpenak egiten ari dira, baina beraien ustetan egiak direnak esaten ari dira. Ez du ulertzen zergatik ez duen onartu Batzorde Errektoreak egindako gonbidapena bilerara etortzeko eta azalpenak emateko. 2014-12-23an zergatik ez zuen esan proposamena zela udalen ekarpenak %53a igotzea?. Ba, hauteskundeak zetozelako eta BILDUKo esanetan atez-atezko bilketa merkeagoa zelako.”

Aitor Aldasoro Lehendakari jaunak: “2011n esaten zaigu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saitetik, zabortegia itxi egin behar dela. Orduetik dator gai hau. Orduan aurreikusi beharreko igoerak aurreikusi izan baziren ez ginbateke orain gauden moduan egongo. Hori ez egiteko arrazoiak zeintzuk izan diren jakin nahi nuke, zeren eta hau ez da talde politikoen gatazka.”

Ordezkarari batek: “Zabortegia irekiko zela esan zen eta hori teknikoek egindako txostenaren arabera, esango zen. Agian teknikoek ez dute bere lana behar bezala egin...”

Aitor Aldasoro Lehendakari jaunak: “Sasietan ere teknikoak baditugu eta gainera Kontsultazioan parte hartzen duten udalerrietako eskarmentu gehiena dutenak. Nik uste dut beraiek ere zerbait jakingo dutela...”

3.- MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN APARTEKO EKARPENEA: 2015eko abenduaren 31rako aurreikusten den aurrekontu-emaitza negatiboari eta Altxortegiko Gerakin negatiboari aurre egiteko Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrien aparteko ekarpena onartzeko proposamena.

Lehendakari jaunak gogorarazi du aurreko bileran erabaki zela, udalei epea ematea egin beharreko ekarpenei buruzko jarrera zein izango zen adierazteko.

Itziar Agirre Urretxuko ordezkarariak esan du, esfortzu berdina dela udalerrri handientzat nahiz txikientzat, baina handiak ekarpenak ez badituzte egiten txikiek ezin dutela dena estali.

Ordezkarari batek jakin nahi du herri handiak zer egin behar duten.

Aitor Aldasoro Lehendakariaren esanetan lehenik eta behin proposamena izango zen, 20 urteetako gerakina gastatzea.

Horren aurrean beste batek galdetu du gerakin osoa gastatzen bada, zer gertatuko den herri batek edukinontzi berriak behar izanez gero.

Lehendakari jaunak erantzun du esanez behar horiek bada ezpada 2016. urteko aurrekontuan horrelakoak aurreikusi egin behar direla.

Mikel Serrano, Zumarragako ordezkarariak: “Zumarragan oraingoz ez du ekarpenik egingo. Ez da posible lau urteetan egin den kudeaketaren ondorioz, zulo hori izatea eta orain guk ekarpenak egin beharra izatea. Agian Foru Aldundira eta Kontsultaziora jo beharrean gaude. Baina guk orain dirua jarri eta ezer ez pasatu izango balitz bezala, ez.”

Edorta Diaz, Beasaingo ordezkarariak ere esan du oraingoz Beasainek ere ez duela dirurik jarriko.

Aitor Aldasoro Lehendakariak esan du onartu zen hitzarmenaren arabera hiru miloi jaso behar zituela Mankomunitateak aurrerakin modura.

Itziar Agirre Urretxuko ordezkariak: “Hitzarmen horren arabera Mankomunitateak ez zuen dirurik jasotzen. Dirua aurreratu egiten zitzaion Mankomunitateari”

Beste ordezkari batek esan du gogoratu egin behar dela orain arte udalerriek ez dutela ordaindu zabor bilketak duen kostu osoa.

Iloritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkariak: “Aipatzen den hitzarmena Batzorde Errektorean bertan ezagutzera eman zen eta nahiz eta aztertu ahal izateko denbora eskatu, eskaera horri ezezkoa eman zitzaion. Onartu zen baina gero hauteskundeak zetozen eta ez zen sinatu. Aurreko legealdia arte armonian jardun izan dugu baina azkeneko lau urteetan goitik ematen zituzten aginduak eta besteak bete egiten zituzten. Hanka-sartze bat izan zela aitortu ordez, txuleriarekin jokatzeko dute eta gure errua dela esaten da.”

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: “Hartzen diren erabakiak ondorioak izango dituzte. Diruaren ekarpena egiten bada ondo, baino bestela fakturak ezin izango dira ordaindu eta Foru Aldundia galdezka hasiko da. GHK edo Foru Aldundira jo nahi bada eta beraiekin bilera bat egin, lehenbailehen egitea komeni da. Ezin dugu gehiago itxaron. Gerakina dagoenik agortuta dago.”

Aitor Aldasoro Lehendakariak: “Irailean sartu nintzen eta maiatzetik sinatu gabe zeuden fakturak sinatu behar izan ditut, jendeak kobratu ahal izateko.”

Ormaiztegiko ordezkariaren ordezkioak: “A parte de la disputa política, me parece inaguantable el desfase, pero no hay que olvidar que es nuestra responsabilidad gestionar los recursos de la mejor manera posible. Yo no quiero correr el riesgo. Con independencia de pedir responsabilidades, nosotros estamos dispuestos a hacer la aportación que nos corresponda.”

Felix Urkola, Lazkaoko ordezkaria: “Nik deuseztatu egiten dut aurreko lau urteetan egin den kudeaketari, baina orain dirua jartzea tokatzen zaigu. Nik erantzukizunarekin jokatu nahi dut. Guk plenora eramango dugu 51.000,00 €ko kreditu-aldaketa. Inpermeabilizazio eta zaborteziaren inguruko beste eztabaida batzuk utzi ditzagun aldera batera eta aurrera egin dezagun beste jokabide bat geureganatuz.”

Aitor Aldasoro Lehendakariak: “Batzorde exekutiboa biltzeko deia egingo dut eta aztertuko ditugu zeintzuk izan behar diren aurrera eman beharreko pausoak. Ba dira herri batzuk arazoak dituztenak dirua jartzeko. Agian banan-banan deitu egin beharko diegu eta ikusi zein den egoera.”

Itziar Agirre Urretxuko ordezkariak: “Egia esan, gure egoera ekonomikoa ez da erraza eta beste aukera batzuk aztertzea eskatuko genuke. Dena dela aurreko lehendakariak aurpegi handia duela iruditzen zait: lehendabizi fondoak

erabiltzea proposatu zuen nahiz eta esan ez dela legezkoa, gero hitzarmena onartu eta ez sinatu eta orain gure errua dela esan. Pentsatzen dut borondate onez egingo zituela egin zituenak, baina hanka-sartze handia izan zen.”

Felix Urkola, Lazkaoko ordezkariak: “Lazkaoko udalak dirua jarri behar badu, ahalik eta kopuru txikia izatea eskatzen dut. Abiapuntua, 51.808,98 €koa da, baina errealitatea da, diru hori 2015eko aurrekontuan aurreikusi behar dugula eta baita ere 2016. urteko aurrekontuan.”

Aitor Aldasoro Lehendakariak: “Niretzat eskandalua izan da gertatutakoa. Ez dugu ahaztu behar azken urteotan zaborren igoera %0a izan dela.”

Altzagako ordezkariak adierazi du momentuz Altzagak ez duela ekarpenik egingo.

Ordezkarri baten galderari erantzunez, Iñaki Erauskin zerbitzuburuak erantzun du defizita estaltzeko ezin dela mailegua eskatu.

Mutiloko eta Gabiriako ordezkariak ezagutzera eman dute, beraiek ekarpena egitea erabaki dutela.

Ordezkarri batek esan du bilera honen helburua herri desberdinen jarrera azaltzea zela eta galdetu du ea jarrera hori azaltzen duen argazkirik ba dagoen.

Aitor Aldasoro Lehendakariak esan du gutxi batzuen erantzuna badutela.

Kontuhartzaileak azaldu du Sasieta Mankomunitateak ekarpen horiek egitea onartzea nahikoa izango litzatekeela bere aurrekontuan eskubide horiek onartzeko, hain zuzen ere, indarrean dagoen Foru Arauaren arabera ekarpen horien kobraketa bermatuta baitago, Foru Aldundiari hala eskatu ezker egingo lukeen foru fondoaren atxikipenarekin. Horrek, diruzaintzako gerakin negatiboaren egoera saihestuko luke, baina ez altxortegi-eza udalerrri handiek edota gehiengoak ekarpenak egiten ez dituzten bitartean.

Felix Urkola, Lazkaoko ordezkariak: “Gertatzen ari dena jasan ezina da, baina ez gaitezen engainatu. Denok dakigu nahiz eta ez aitortu diru hori jarri beharrean gaudela. Nik ez dut nahi herritarrei ilea hartu. Eskatzen dudak bakarra da, ahalik eta gutxiena izatea. Hori bai, inork ez badu jartzen guk ere ez dugu jarriko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, batzorde exekutiboa biltzekotan geratu da erabakitzeko zein neurri hartu, hau da, Foru Aldundiarekin edota GHKrekin biltzeko saiakera egin eta bide batez jakin Mankomunitatea osatzen duten herrien jarrera eta disponibilitatea zein den ekarpenekiko.

4.- 2014. EKITALDIKO KONTU OROKORRA: 2014. ekitaldiko Kontu Orokorra onestea, hala badagokio.

Ezagutzera eman da aurreko legealdian zegoen Kontuhartzaileak prestatu duela eta oraingoak ez duela denborarik izan aztertzeko.

Kontuhartzaileak esan du dagoeneko horren onespena epetik kanpo dagoela eta orain onartu edo hemendik hamabost egunetara onartzeak ezer ez duela aldatzen, kontutan izanik auditori txostena falta dela eta onespena egin baino lehen txosten horren berri izatea dagokiola.

Ormaiztegiko ordezkariaren ordezekoak esan du, sinestezina dela aurkeztutako dokumentazioak Kontu Orokorra osatzea. Bere ustetan dokumentazio gehiago falta da.

Kontu Orokorraren onespena atzeratu egiten da, auditoria aurkeztu arte.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera gaueko bederatzia hogei gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.